



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 29a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Cintruenigoko hezkuntza-premiei buruz. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklara dezan. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa premiatzen da 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda ditzan. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak ezetsi egin du (9. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako errepedeen egoera ona bermatzeko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Apustu-etxeen nafar araubidea prestatzeko ponentzia. Barne-funtzionamendurako arauak (11. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Cintruenigoko hezkuntza-premiei buruz.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Cintruenigoko hezkuntza-premiei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Cintruenigoko La Paz Bigarren Hezkuntzako Institutuaren hezkuntza-eskaintza handitze aldera.

Cintruenigoko La Paz BHla 1998an eraiki zen, lehen aldiz 2007an handitu zen, eta iaz eman zen bukatutzat bigarren handitzea: hiru ikasgela arrunt, bikoizketetarako ikasgela bat, komunak beheko eta lehendabiziko solairuetan, eta arkupea.

Cintruenigoko DBHlak LHko, DBHko eta CBUko 300 ikasle inguru eta 37 irakasle hartzen ditu. A eta G ereduak eta hizkuntzak ikasteko programa eskaintzen ditu; halatan, ikasleek programa elebidunak eta 46 programa eleanitz egiten dituzte.

Ikasle-aniztasuna da ikastetxearen ezaugarri nagusietako bat, ikasleen % 40 etorkina baita.

Egun, institutuaren hezkuntza-proiektuak A eredu (euskara hautazko irakasgaia) dauka, eta frantsesa du atzerriko bigarren hizkuntza. Horrez gain, Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialaren (NUHEO) programa eskaintzen du, eta horretarako, berariazko taldeak antolatzen ditu 3. eta 4. mailetan, frantsesaren eta ingelesaren ziurtagiriak lortzea errazteko asmoz.

Cintruenigok biztanle-bilakaera nabarmena izan du ikastetxea 1998an eraiki zenetik; izan ere, ozta-ozta hogeitaz urtekoa den epe batean 5.500 biztanle izatetik gaur egun ia 8.000 inguru izatera pasatu da.

Cintruenigoko egungo hezkuntza-eskaintzak ez die erantzuten herriaren beharrezari. Izan ere, ia 8.000 biztanle izanda, Nafarroan biztanle gehien dituzten hamabost udalerrietako bat da; dagoen eskariari erantzun behar dio eta ikasle askok ikasten jarraitzeko beste herri batzuetara joan behar izatea ekidin behar da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Herriak egun daukan hezkuntza-premiei buruzko azterlan bat egin dezan.

- Lan-mahai bat eratu dezan Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin, udal ordezkariekin, gizarte eragileekin, enpresaburuekin eta gizarte entitateekin, herriak daukan hezkuntza-premiak planteatzeko eta adosteko.

- Cintruenigoko La Paz BHlaren hezkuntza-eskaintza handitu dezan, DBH bukatu ez duten eta beren prestakuntza Lanbide Heziketa batera bideratu nahi duten pertsonen zuzendutako Oinarriko Lanbide Heziketako zikloekin.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita EmanZipa programako laguntza lortzeko baldintzetako zenbait alda ditzan.

EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programa prestazio bermatu bat da, ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko; 23 urtetik 30 urtera bitarteko gazteei zuzen-

dua da eta 3 urtez luza daiteke gehienez ere (ez dute zertan jarraituak izan). Laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren errentaren % 50ekoa izanen da, eta gehienez ere 250 eurokoa hilean, etxebizitzaren errenta hilean 650 euro baino gehiagokoa ez izatearen baldintzarekin.

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin izandako lan-bileran programa horri buruzko balorazio positiboa egin zen, baina programaren bi alderdi negatibo –zuzendu beharko lirakeenak– nabarmendu ziren: adin-tartea (23tik 30 urtera) oso murriztailea eta diskriminatzailea da, kanpoan uzten dituelako programa besarka lezaketen gazte asko eta asko (Gazteriaren Foru Legeak ezartzen du pertsona bat 30 urte bete arte dela gaztea, baina adin horretan da gazte asko emantzipatzen direnean, eta hortik programa 35 urtera bitarte luzatzearen premia). Bestalde, programak ez du errazten pisu bat hainbat pertsonaren artean hartzea; hortaz, etxebizitzaren gehieneko hileko errenta handitzea proposatzen da, hileko laguntza indibidualaren gehieneko zenbatekoa aldatu behar izan gabe (250€).

Erabaki proposamena:

1. Programaren balizko onuradunen adin-tartea 23tik 35era urtera bitartekoa izateraino handitzea.

2. Etxebizitza hainbat pertsonaren artean hartzeko aukera erraztea, etxebizitzaren hileko gehieneko errentaren betekizuna handituta.

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan Elkarrizketa Sozialerako Kontseilurako deialdia.

Garapen ekonomiko eta sozialerako funts-funtsezkoak dira elkarrizketa- eta akordio-esparruak, gobernuen eta ordezkartasun handieneko solaskide sozialen artekoak. Europar Batasunean, aurrerapauso guztiz nabarmenak ematen ari dira elkarrizketa iraunkorreko esparru horien instituzionalizazioan. Europa 2020 Estrategiak barnean hartzen ditu solaskide sozialak, oinarrizko parte bat direlakoan bai kontsultarako bai parte hartzeko, Europar Batasunean gobernantza publikoa eta erreforma ekonomikoak eta sozialak hobetze aldera.

Espainiako Konstituzioak aitortu egiten du ordezkartasun handiena duten enpresa-erakunde eta sindikatuak berezkoak dituzten interesak defendatu eta sustatzeko daukaten zeregina, eta, nolakotasun horrekin, konstituzio-izaerako munta ematen die. Agindu horren babesean, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea onetsi

zen Nafarroan, gizarte-eragile horiekiko aitorten formal gisa, eta, halaber, behar dituzten eremu instituzionalak emateko, berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialen defentsaren eta sustapenaren zeregina bete ahal izan dezaten. Defentsa horren adierazpen gorena da, hain zuzen, enplegu planak prestatzea, dokumentu horiek irudikatzen baitute enplegu eta garapen arloko politika osoa; kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitateko politika markatuko duena.

Aurre egin beharreko erronka handiak planteatzen dizkigu etorkizunak, hala nola garapen industrial orekatua, plantillen gaztetzea, ekonomiaren eraldaketa digitala edo klima-aldaketaren aurkako borrokari ekitea. Gainera, Nafarroan oraindik ere daukagu langabezia-tasa altu bat eta lan-prekarietatearen maila onartezin bat, eta horiek gauzatzen dira, besteak beste, soldata baxuetan, behin-behinekotasun tasa ikaragarrian, lanaldi partzialeko lan gehiegitan, lan-istripuen tasaren eta lanbidegaixotasunen gorakadan, soldata-arrakala nabarmenean edo ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren maila altuetan.

Arazo horiek, beste askoren artean, justifikatzen dute eragile ekonomiko eta sozial guztiakin ahalik eta elkarrizketa eta adostasunik handiena erdiestea Nafarroarako Enplegu Plan bat prestatzeko.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz egin dezan Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilurako deialdia.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etorkizuneko Nafarroako enplegu plana erakunde sindikalekin eta enpresa-erakundeekin adostu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etorkizuneko Nafarroako enplegu plana gehienez ere urtebeteko epean onetsi dezan, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan.

Iruñean, 2019ko urriaren 23an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Airearen Kalitatea hobetzeko Plan bat taxutu dezan, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ekologistak Martxan GKEak urriaren 22an argitaratutako "La contaminación por ozono en el

Estado español durante 2019" txostenak dioenez, ia 300.000 nafarrek –populazioaren % 46k– arnasten dute OMEren gomendioen arabera osasunerako kaltegarria den airea lurralde ia osoan.

Txosten horrek dio 2019an nabarmen handitu direla ozono-kontzentrazioak; halatan, batez beste, aireko ozono-kontzentrazioaren epe luzeko helburua (120 ug/m³) gainditzen da Nafarroan airearen kalitatea neurtzeko hiru estazioetan.

Eta orobat dio Nafarroan ez dagoela egon beharreko planik airearen kalitatea hobetzeko, bere lurretan ozono troposferikoa murrizteko; hori dela-eta administrazioarekiko errekurtso bat aurkeztu da Nafarroako Gobernuaren jardura eza-gatik.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du airearen kalitatea hobetzeko plan bat taxutu dezan Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta organo eskudunen bidez, ozono troposferikoak eragindako kutsadura murrizteko, Nafarroako populazio osoaren bizi-kalitatea eta osasuna hobetze aldera ingurumen-erakundeek ezarritako irizpideei jarraituz.

Iruñean, 2019ko urriaren 23an

Eleduna: María Luisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezan.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eleldun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezarritzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du:

Iaz, Tafallako erakunde diren Altaffaylla Fundazioak, "Hermanas Flamarique" jota-eskolak, "Rondalla Tafallesa" delakoak eta dantzarien eta herri-musikagileen "Martín Galdeano" elkarteak, helaraziz Navarjota elkarteak eta NUPeko Nafarroako Ondare Immaterialaren Katedrak aurkezturiko eskaera, mozio bat aurkeztu zioten Tafallako Udalarari –Udalak onetsi egin zuen–, Nafarroako Gobernuak Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu zezan Nafarroako Jota.

Tafallako hiriak urte asko daramatza Nafarroako jotaren bultzatzaile nagusi, eta gai horretan aitzindari izan da, eremu horretako ekimen ugariarekin, halako moldez non zenbait autorek "Nafarroako Jotaren Hiriburu" ere deitu izan baitoite.

Aitzindaritzan hori, nolabait, bost zutoinetan dago oinarriturik:

a) Kokaleku geografikoa eta jotazaletasun handiko eskualde baten buru izatea.

b) Bertakoak diren jota-interpretatzaile ugari eta entzutetsuak.

c) Bertako diskografia jori eta antzinatikoa.

d) Bertako bibliografia oparoa.

e) Bertako jaialdi jada tradizionalak eta jota-eskola.

a) Kokalekua. Lehenengo atalari dagokionez, agerikoa da Tafallako eskualdea aberatsa dela jotazaletasunean: Raimundo Lanask, gure ikonotako bat, Murillo el Frutokoa zen, eta gure hirian Larraga, Azkoiak, Martzilla, Funes, Faltzes eta abarretako jotari bikainen egintzaren lekuko izan gara.

b) Interpretatzaileak. XIX. mendetik ageri da Tafalla jotaren jatorrian, are Raimundo Lanask baino lehenagotik ere: horren erakusgarri dira Los Pajes de Tafalla, eta haien ondotik etorritako los Monrealeses, los Zabalegui, Zaratiegui, Flamarique, Armendáriz, Sola, Sota, Zabalza, González eta sekulako interpreteen segida luze bat, sari-sorta eta diskografia galantekoak.

c) Diskografia. Ezagutzen diren lehen diskoak Los Pajes de Tafalla ospetsuenak dira; nafar jotaren zinezko historiaurrea, XIX. mendeko letra, melodia eta estiloetaraino eramaten gaituena. Horien ondotik disko ugari etorri dira, Juan Navarro, Las Hermanas Flamarique, Los Tres de Tafalla, Laureano Sola eta besterenak.

d) Bibliografia Kopla eta jota kantatu nahiz dantzatuak datuak XIX. mendearen hasieratik dira. Geroago, Nafarroako beste inon ez da ekotzi gure hirian bezainbesteko bibliografiarik, argitalpen, kultur liburuxka, monografia eta abarren pareko kopuruan. José Menéndez maisuak hasi zuen, bere "Colección de Jotas Navarras" bildumarekin, zeinak lau liburu gehiagoko jarraipena izan baitzuen. Ondotik etorri ziren Julián Condón Urroz eta Pedro Mari Flamarique jaunek 1968 eta 1987 bitartean eginiko zortzi bilduma-lanak. Berrikiago agertu dira Jose Mari Esparza Zabalegi eta Iñigo Agerriren liburu, disko-liburu eta artikulua, jotari buruzko jakingarri ezezagunen berri ematekoak. Beste disko-liburu batzuk prestaketa-aldian daude oraindik.

e) Jaialdiak eta Eskola. Tafallan dokumentazio asko dago jota kantatu nahiz dantzatuaren ema-

naldi eta jaialdiei buruz. XIX. mendeko Echagüe edo Los Pajes-en ondotik, Gorriti antzokiko jaialdiak izan ziren, 20ko eta 30eko hamarkadetan (Monrealeses, Navarro, Lanás). Baina aurreko mendeko 60ko hamarkadan erdietsi zuten iraunkortasuna, 1965ean Nafarroako Jotaren Lehen Jaialdi Handia egin zenetik aurrera. Horrek jarraipena izan du gaur arte. Gainera, 1973an, Diputazioaren babesarekin, Nafarroako jotaren lehen eskola ofiziala eratu zen, 1988an "Hermanas Flamarique" izena eman zitzaiona lehen zuzendarien omenez. Haien lanari gaur arteko jarraipena eman zaio.

Atzo bertan, Kultura Batzordearen lan bileran agerraldia egin zuten Gracia Navarra jota-taldeak eta Ecos del Arga rondallak, proiektu bat hauspoitze aldera, zeinaren arabera Tafallako Errekoletoen komentu ohia etorkizunean Nafarroan Jotaren Interpretaziorako lehen Zentroa litzatekeenaren egoitza bilakatuko bailitzateke.

Hori guztia dela-eta, Tafalla ezin da alboratuta geratu Jota "Nafarroako ondare immaterialeko kul-

tur intereseko ondasun" deklaratzearen posibilitateak; eta, gainera, orain arte bete duen zeregina jorratzen segitu behar du; hots, abangoardia izatea, interpretazioa eta dokumentazioa.

Aurreko guztiagatik, ondoko erabakiak hartzea proposatzen da:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren erabakiak har ditzan Nafarroako Jota, bere adierazpide guztietan, "Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun" deklaratu dadin.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu bat mamitu dadin, Tafallako Udalarekin lankidetzan eta kasuko hitzarmena sinaturik, etorkizunean Tafallako Errekoletoen komentu ohian kokatuko duena Nafarroako Jotaren Artxibategi Musikal eta Dokumental eta Interpretazio-zentroa izanen dena.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa premiatzen da 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Sustapen Ministerioa premiatzen baita 2020an ekin diezaien AP-68 autobideko lotunea osatzeko aurreikusitako obrei, Lodosako 14. lotunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

AP-68 autobidea eraikitzeke hasierako proiektuan –1973an idatzi zen– 14. zenbakiko irteera (Lodosa-Pradejón) zegoen jasota. Horren froga da Agoncilloko irteera 13.a dela eta Calahorrakoa, berriz, 15.a, eta bien bitartean dago Lodosa (hortaz, 14.a).¹

2003an, Nafarroako Gobernuak eta autobidearen enpresa esleipen-hartzaileak sinatutako hitzarmenaren bidez ireki zen 14. sarbidea. Halere, bi norabidekoa egin beharrean, norabide bakarrekoa egin zen, Zaragozako norabidean hain zuzen ere. Horrek ika-mika ekarri zuen inguruetan, uste

zutelako norabide bakarreko lotunea eraikitzeak ez ziela erantzun osoa ematen eskualdean sortutako itxaropenei eta beharriazane.

Geroago, 2009an, Nafarroa Bai Estatuaren Aurrekontu Orokorren Lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketa bat onetsi zuen Diputatuen Kongresuak proiektua idazte aldera, baina ez zen ekitaldi hartan egitera iritsi.

2014ko abenduaren 17an, Diputatuen Kongresuko Sustapen Batzordeak legez besteko proposamen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatu baitzuen egin beharreko jarduketak egin zitzaizkien lotune hori zeharo garatzeko.

2018ko uztailaren 17an, Sustapen Ministerioak jendaurreko espedientea eta trazaduraren proiektua behin betikoz onetsi zuen, Lodosako lotunea osatzeko AP-68 autobidean. Obraren lizitazio-aurrekontua 4,2 milioi eurokoa da. Jarduketa horrek AP-68 autobideak eta N-232 errepideak osatzen duten bide-korridorearen funtzionaltasuna eta mugikortasuna hobetuko ditu, Sustapen Ministerioak berak onartzen duenez.

Halaber, hala Lodosako Udalak nola inguruko udalek eta eskualdeko enpresek uste dute obra hori interes handikoa dela herriarentzat, eskualdearentzat eta Nafarroa osoarentzat, eskualdeko bizilagunen komunikazio-bideak nabarmen hobetzea dakarrelako, eta beste horrenbeste bertako enpresentzat, bultzada ekonomikoa ematen diolako Ebroko ardatzaren inguru horri.

AP-68 autobidearen gaineko eskumena estuarena denez gero, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

- Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du –zehazki, Sustapen Ministerioa– 2020an egin ditzan AP-68 autobidearen Lodosako lotunea –14. zenbakikoa– osatzeko aurreikusitako obrak, horretarako beharrezkoak diren aurrekontuzukidurak esleituta.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketa aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioko kide Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gaur, ikuspegi ekonomiko eta sozialetik ziurgabetasuneko den egoera batean aurkitzen gara. Biztanleria Aktiboaren Inkestako hirugarren hiruhilekoaren datuak negatiboak dira. Horien arabera biztanle gehiago dago, baina biztanleria aktibo gutxiago (lanean edo lan bila ari den jendea), okupatu gutxiago (lanean ari den jendea), eta langabetu gehiago. Hiruhileko honetan, Nafarroan % 7,57ko igoera (1.800) izan du langabeziak, eta 25.900 pertsonakoa izatera iritsi da. Gure langabezia-tasa, % 8,19, Espainiako baxuenetakoa da oraindik ere, nahiz eta beste autonomia erkidego batzuk hurbiltzen ari zaizkigun.

Gobernuen eta eragile ekonomiko eta sozialen (zehazki, enpresa- eta sindikatu-erakundeen) arteko adostasun handiak izan dira ohiko jokamoldea hamarkada askotan zehar, aurrerapauso sozial aipagarrienetariko batzuk lortzeko bai Nafarroan bai Europako eskualderik aurreratuenetan; halaber, erronka sozioekonomiko handiei heltzeko edo ziurgabetasunez beteriko koiunturei aurre egiteko.

Horrela dio 2017ko urtarrilaren 25ean Gobernuak eta ordezkarietasun handieneko eragile ekonomiko eta sozialek Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorrean iritsi zuten akordioak. Hain zuzen, Parlamentuak aldezturikoa izan zen akordioa, ezen otsailaren 6an adierazpen instituzional bat onetsi baitzuen, honela zioena: "Nafarroako Parlamentuak bere egiten du elkarrizketa soziala, Nafarroako Foru Komunitaterako garapen ekonomiko eta sozial orekatu bat lortzeko osagarri funtsezko eta estrategiko gisa". Adierazpena Nafarroako Alderdi Sozialistaren talde parlamentarioak aurkeztua zen.

Akordio horretan ibilbide-orri bat jasotzen zen enplegu-plana egiteko, eta xedatzen zen Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluari dagokiola plan hori

onestearen eskumena. Onespren hori ezinbesteko baldintza zen Gobernuak geroago onespren formula eman ziezaion eta azkenik Parlamentuak berrets zezan.

Aurreko Gobernuak ez zuen ibilbide-orri hori bete. Enplegu-planik ez edukitzeak badakar ondorioak. Biztanleria Aktiboaren azken Inkestako datuetan ikusten den bezala, enplegu-alorrean Nafarroak lehiakortasuna galdu du beste autonomia erkidego batzuen aldean. Azken horiek izan dira gai, bai, enplegu-plan bat adosteko.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakaria premiatzen du Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilurako deialdia egin dezan hilabeteko epean, berriro heltzearen, berrikusiz, Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak 2017ko urtarrilaren 25ean onetsitako ibilbide-orriari, zeina enplegu-plan bat prestatzekoa baita.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda ditzan.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2019ko urriaren 22an egingako bilkuran, ezetsi egin du mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena herritar guztien hizkuntz eskubideak defenda zitzaiz, zeina EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu

baitzuen eta 2019ko urriaren 11ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Interpelazioa, Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko politika orokorrari

buruzkoa zen, eta 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/ITP-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2019ko urriaren 23an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren neurriak gara ditzan, Nafarroako Foru Komunitatean apustu-etxeak, bingoak edo jokoarekin eta apustuekin lotutako jarduerak garatzen diren lokalak irekitzeari moratoria bat ezartzeko aldera, indarreko araudiaren baitan, horretarako eratu den ponentziak bere lana egiten duen bitartean".

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Apustu-etxeen nafar araubidea prestatzeko ponentzia.

Barne-funtzionamendurako arauak

Legebiltzarreko Erregelamenduen 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen "Apustu-etxeen nafar araubidea prestatzeko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak", zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2019ko urriaren 25ean eginiko bilkuran. Hona testua:

Apustu-etxeen nafar araubidea prestatzeko ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak.

"Lehena. Ponentziak xedetzat du apustu-etxeen nafar araubideari buruzko txosten bat egitea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera, izan beharreko ondorioetarako.

Bigarrena. Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

José Suárez Benito jauna (Navarra Suma talde parlamentarioa).

Ordezkoa: Carlos Pérez-Nievas López de Goechea jauna (Navarra Suma talde parlamentarioa).

Jorge Aguirre Oviedo jauna (Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa).

Ordezkoa: María Inmaculada Jurío Macaya andrea (Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa).

Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (Geroa Bai talde parlamentarioa).

Ordezkoa: Jabi Arakama Urtiaga jauna (Geroa Bai talde parlamentarioa).

Bakartxo Ruiz Jaso andrea (EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa).

Ordezkoa: Domingo González Martínez jauna (EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa).

Ainhoa Aznárez Igarza andrea (Podemos Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte).

Ordezkoa: Mikel Buil García (Podemos Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte).

María Luisa De Simón Caballero andrea (Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoa).

Hirugarrena. Ponentziak lehendakaria hautatu du. Kasua bada, ponentziako beste kide batek ordeztu ahalko du lehendakaria. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

Laugarrena.- Ponentziak boto ponderatuko sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat foru parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

Bosgarrena. Ponentziak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezzen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezzen. Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitezzen.

Seigarrena.- Ponentziako kideen gehiengoak hala erabakitzen badu, ponentzian egiten diren agerraldiak irekiak izanen dira hedabideentzat eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea, eta haien mintzaldia publikoa egitea ere. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean egiten dira. Hark, bilera-eskatailearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Parte-hartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako

beste txanda bat ireki ahalko du. Horiek egiteko bost minutu edukiko dituzte.

Zazpigarrena. Ponentziak lanerako plana ezarriko du, non bere lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko dituen. Plan horren berri emanen zaio Legebiltzarreko Mahaiari.

Zortzigarrena. Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte jardunen du. Ponentzia-eratzetik sei

hilabete igarotakoan amaituta egon beharko du lan horrek, deusetan galarazi gabe onesten ahalko diren balizko luzapenak.

Bederatzigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea”.

Iruñean, 2019ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias